



PAUSOZ PAUSO



BERDINTASUNERA



Martxa-kalejira Andoaingo Basterotik Goikoplazara, larunbat eguerdian. / 8-9

AIURRI

M8 *Emakumeen nazioarteko eguna*
Martxoak 8, 18:00, San Joan plaza
ELKARRETARATZEA

 Martxoak 9 eta 11, 19:00, Sarobe
ZINEA: FIGURAS OCULTAS (doan)

Martxoak 10, 19:00, Sarobe
ANTZERKIA: HIRU EMAKUME (doan)



SAHARAAREN

ALDEKO

BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
2018 / 3 / 25 eguerdiko 12:00etan

Unai Agirre Beñat Gaztelumendi
Sustrai Colina Unai Muñoa
Aitor Mendiluze Oihana Iguaran

Gai jartzailea: Ion Beloki

Sarrerak salgai: Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats

6.00€

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK





Sentsibilizazio kanpaina handia egin dute Andoainen, asteotan. AIURRI

Olatz Lasa ANDOAIN

Sentsibilizazio kanpaina handia egiten ari zarete. Kide asko zarete Asanblada Feministan, ala gutxiren artean egiten duzue lana?

Bakoitzak ahal duguna egiten dugu. Ikasleak edota langileak gara gehienak, eta ahal dugunean biltzen gara, normalean bi astetik behin. Martxoak 8ko ekintzak prestatzeko gehiagotan bildu behar izan gara, pankartak, kartelak prestatu eta jartzeko. Guztira, orain arte, 15-20 lagun bildu izan gara asanbladatan.

Aurten, mobilizatorako ekimen handiagoa ikusten da. Zer dela eta izan daiteke?

Antolaketa da gakoa. Orain arte asanblada antolaturik egon ez izana izan daiteke arrazoietako bat. Udalak antolatu izan ditu ekintzak, baina positiboa da herritarrek euren kabuz antolatutako ekimenak aurrera eramatea. Parte-hartzea eta autogestioa dira gure asanbladaren oinarrietako batzuk.

Grebak zentzu oso ezberdinak izan ditzake. Zuek zer nolako greba egin nahiko zenukete?

Jendartearentzat ikusezin diren lanak ikustaraztea da greba honen helburu nagusietako bat. Zaintza lanak –bai ordainduak eta baita doakoak ere– egiten dituztenen gehiengoa emakumezkoak dira, eta lan prekarioak izaten dira gehienetan. Emakumeok bizi dugun lanaldi bikoitza salatu nahi da, grebaren bitartez. Egun batez mundua geratzeko da helburua, emaku-

Planto egiteko deialdia

Andoaingo Asanblada Feminista Martxoak 8ko greba deialdiaren sentsibilizazio lanetan murgildu da, buru-belarri. Abiatu berriak badira ere, geratzeko asmoa etorri dira. Erronka berria dute buruan: sentsibilizazio kanpaina Santakruzetan

meok geratzen bagara, mundua geratzen delako.

Aldarrikapenak ere asko izan daitezke. Aurten zer nabarmendu nahi duzue?

Zaintza lanen ikusezintasuna eta emakumeon lanaldi bikoitza. Lan mundura irten ginen, baina horrek lan bikoitza egitea ekarri digu. Burujabetza ekonomikoa lortu dugula saldu digute, eta hein batean hala da, baina egoera prekarioak dira nagusi eta lanaldi bukaezinen ondorioz, bizitza duina izatea zaila da. Bestalde, gizonen soldatekin alderatuta dagoen arrakala kon-

"ZAINZA LANEN IKUSEZINTASUNA ETA LANALDI BIKOITZA ALDARRIKATU NAHI DITUGU AURTEN"

tuan hartu behar da; feminizatutako lanak okerrago ordaintzen dira, eta gutxiago baloratzen dira. Sistema ekonomiko hau salatzea da grebaren helburuetako bat, bizitza eta zaintza lanak erdigunean jarri behar direla uste dugu, eta benetan duten balioa eman.

Nola uste duzue ikusten duela gizarzteak, oro har, Martxoak 8ko aldarrikapen eguna?

Urte urte indarra hartzen ari dela ematen du. Feminismoak gero eta espazio nabarmenagoa du jendartean, komunikabideetan..., guztion ahotan dagoen hitza da. Betaurreko moreak gero eta jende gehiagok jarri dituela dirudi.

Hori positiboa da, baina garrantzitsua da arazoaren erroak bistatik ez galtzea.

Andoaingo Udaleko Berdintasun Saila berri samarra da. Azaroaren

25aren, LGTBI kolektiboaren egunaren edota Jabekuntza Eskolaren bitartez ekimen ezberdinak prestatzen dituzte. Zein balorazio egiten duzue?

Erakunde publikoak borroka horretan inplikaturik ikustea pozgarria da, noski. Baina erakundeek euren espazioa duten bezala, herritar antolatuek ere gure espazioa behar dugu. Andoainen denen arteko lankidetzan sinisten dugu.

Hartuko al duzue parte larunbat honetako "Martxoak 8, 8 emakume" kalejiran?

Ahal dugunok joango gara. Ez diegu muzin egiten Udalak antolatutako ekimenei, gutako batzuk ere inplikaturik gaude bertako antolakuntzan. Udalak herritarren parte-hartzea kon-tuan hartzen du ekimen horien antolakuntzan, eta hori esker-tzekoa da.



Asanbladako kideak Andoainen.

Martxoaren 8ko hitzorduak

Urnietako Udalak elkarretaratzea deitu du San Juan plazan, 18:00tan.

Andoainen mobilizazio ezberdinak iragarri dituzte:

- 11:30 Kazerolada Goikoplazan.
- 14:30 Bazkaria Gaztetxean.
- 18:00 Mobilizazioa Zumea plazan.

Egun Andoainen nabarmentzen ari den aldarrikapena pentsiodun eta jubilatuen da. Bitxia bada ere, aldarrikapen horretan lehen lerroan daudenak emakumezkoak dira.

Emakumeak jendartearen erdia bagara, normala izan beharko luke edozein motatako aldarrikapenetan egotea. Gainera, pentsioei dagokienez, emakumeok gara prekaritate gehien sufritzen dugunak, izan ere emakumeen pentsioak baxuagoak dira gizonenak baino, oro har. Beraz, normala da emakumeak egotea lehen lerroan. Poztekoa da, baita ere, adin guztietako emakumeak plazan elkarrekin ikustea. **Martxoaren 9tik aurrera talde bezala jarraitzeko asmoa al duzue? Hala bada, zein alorretan zehazki?** Bai, asanbladaren hasiera baino ez da hau, eta aurrerantzean ere lanean jarraituko dugu. Santakruzak gertu daude, eta, besteak beste, jai-eremutan ematen diren eraso sexisten inguruko laneketa egitea beharrezkoa dela uste dugu.

Bestalde, Berdintasun Sailak antolatutako ikastaroetan parte-hartzera ere animatu nahi ditugu herriko emakumeak.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

OLGA HERNANDEZ GANEMOS ANDOAIN UDAL TALDEKO ZINEGOTZIA

2018ko Udal aurrekontuak

Podemos Andoain Ahal Duguko zirkuluak oso modu positiboan ikusi du EH Bildu, Ganemos Andoain, Irabazi Andoain eta Alvaro Gonzalez atxiki gabeko zinegotziak 2018rako udal aurrekontuen inguruan lortu duten akordioa.

2017an zehar gauzatuak akordioan, konpromiso ezberdinak hartu dira zenbait Udal zerbitzu publikatu eta tasa mailakatuen inguruko azterketa egiteko lan mahaiak sortzeko.

Beste batzuen artean, honakoak dira 2017ko likidazioarekin egingo diren inbertsioak: Arrate pilotalekuaren eraberritzea: 1.200.000 euro -bi urtera finantziatua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik 434.850 euroko dirulaguntza izango duena-; Doktor Huitzi kaleko haur-parkea: 180.000 euro guztira -Horietatik, 48.000 euro 2018ko finantziatziotik-; Haur-parkeak estaltzeko inbertsioa: 200.000 euro; Auzoz auzo parte-hartze prozesuan herritarrek eskatutako eraberritze eta hobekuntza obrak, herriko puntu ezberdinetan garatzeko: 552.000 euro; Argiteria puntu berriak: 120.000 euro; Udalaren jabetzako etxebizitzaren berrikuntza: 100.000 euro; Irisgarritasuna, udaletzeko igogailua: 140.000 euro; Herri-bideak: 50.000 euro; Agenda 21 prozesurako inbertsioa: 200.000 euro; Proiektu eta azterketa ezberdinak: 190.000 euro; Udal eraikinetan berritzeak egiteko inbertsioa; altzariak eta hornikuntza: 325.000 euro; Ur beltzen mapa berritzeko digitalizazio lana: 60.000 euro; Hondakin organikorako edukiontzia txikiak, poltsak eta txartelak: 20.000 euro.

ZERGA-BILKETA JUSTUAGO ETA MAILAKATUAGOA JARRIKO DA MARTXAN

Inbertsio horiez gain, etxebizitzaren eraberritzerako eta alokairu-sozialerako partida zabaltzea adostu da. 50.000 euroekin zabalduko da partida hori eta dirulaguntza horiek eskatzeko ordenantza lantzeko konpromisua ere hartu dute. 2018an zehar ere gauzatu

dute kale garbiketa zerbitzuaren publikazioa eta horren ondoren, alde guztien konpromisua da beste zenbait zerbitzuren publikazioa erraztea, zerbitzu bakoitzak horretarako eskaintzen dituen aukeren inguruan beharrezko azterketa guztiak egin ondoren. Politika fiskal justuagoa martxan jartzearen alde, zerga-bilketa justuagoa eta mailakatuagoa jarriko da martxan, gutxiago dutenek gutxiago ordain dezaten.

POSTONTZIA

Elkarbizitzarako behar den segurtasun publikoa

ELKARBIZI TALDEA

Datorren martxoaren 21ean eskualdeko Elkarbizi taldeak 2018rako antolatutako duen programaren lehenengo ikastaroa burutuko da. "Elkarbizitzarako behar den segurtasun publikoa" izenburupean, segurtasuna jorratuko dugu. Hizlariak Ertzaintzako bi agente izango dira: Iñaki Elexalde, Segurtasun publikoa eta Kudeaketa aurreratua gaietan aditua, eta Karmelo Martinez, Hernaniko Ertzain-etxeko nagusia.

Herritarren segurtasunik gabe ezin da elkarbizitza duinik eraiki. Eta, oker gabiltza pentsatzen badugu segurtasun hori poliziaren ardura bakarrik dela. Auzokide eta agintarien arteko konfiantza giro batean



Ikastaroa martxoaren 21ean izango da, Lasarte-Oriako Villa Mirentxu eraikinean.

egiten den elkarlanaren bitartez lor daiteke herritarren segurtasun eskaerei erantzunik eraginkorrena ematea.

Galdera ondokoa litzateke: udalerriko segurtasunarentzat lehentasunezkoak diren arriskuak finkatzeko, nola gauza daiteke herritarren parte-hartzea?

Ikastaroa iluntzeko 19:00etan hasi eta gaueko 21:00ak arte luzatuko da, Lasarte-Oriako Villa Mirentxu eraikinean.

Parte hartzeko plazak mugatuak direnez, izena emateko epea datorren martxoaren 19an bukatuko da. Izen ematea, e-postaz egin daiteke: ganboiturri@gmail.com.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA: EUSKO INPLURALITZA GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia
 ZIURTAGIRIA: Bitkarn
 BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Topaleku atsegina da Zuena emakumeen elkarte"

TOÑY LANDA ZUENA EMAKUMEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Xabier Lasa ANDOAIN

Elkaratek larunbatean ospatuko den emakumeen bazkaria antolatu du. Urtez urte hazten doan hitzordua da, emakumeak mahai batean inguruan biltzen dituen. **Zenbatek eman dute izena dagoeneko?**

Larogetik gora. Geroz eta jendetsuagoa bilakatzen ari da, 2004an lehendabiziko aldiz antolatu zenetik. Martxoaren 8aren inguruan Andoainen erroto den ekitaldietako bat dela esan daiteke.

Asteazkenean jarri genuen azken eguna, baina ez diegu ezetz esango egoitzara ostirala bitarte ager daitezkeen bakan horiei. 35 euroren truke, bazkari ederraz gozatu ahal izango dugu Oianumen. Irekia da, edonork har dezake parte. Zuenako bazkideei, ohi denez, erdi prezioan aterako zaie.

Zer moduzko giroa izaten da?

Primerakoa. Azken batean, elkartearen urteko bazkari ofiziala izaten da, elkarte



Toñy Landa, eta atzean martxoaren 8ko pankarta Udaletxeko balkoian eskegita. AIURRI

osatzen dugun kideen topagunea. "Pausoz pauso" kalejiraren ondoren izaten da, eta giro bikaina sortzen da. Bazkalostean dantza saioa egiteko aukera dago. Egin kontu bazkarira doazen askok

urtean zehar elkarteak antolatzen dituen dantza ikastaro ezberdinetan parte hartzen duela.

Zuenako kideak buru belarri ari zarete Martxoaren 8ko ekitaldi sortan.

Bai, ahal duguna egiten dugu. Antolaketa batzordean parte hartzen dugu, geure ekarpenak eginez; halaber, "Pausoz pauso" kalejiraren antolakuntzan zenbait ardura hartzen ditugu.

Zenbat emakume biltzen zarete Zuena elkarte?

130 bazkide dauzka elkarteak, gaur egun. Makina bat ekimen (ikastaroak, bidaiak...) antolatu ohi ditugu urtean zehar. Ikastaroak denen gustukoak izan daitezten saiatzen gara: pilates, yoga, zumba, sebillanak, areto-dantzak, esku-lanak... Urtean 40 euroko kuota ordaindu behar izaten dute bazkideek, baina ordainean, ikastaroak erdi preziora jaisten zaizkie. Andoainen oraindik badira Zuena elkarteaz ezagutzen ez duten emakumeak, eta horiei geure egoitzara hurbiltzeko gonbidapen berezia egingo nieke. Extremadura kaleko 2 bisen gaude. Topaleku atsegina da Zuena.

Ez al zaizu iruditzen berdintasunaren aldeko mezua inoiz ez bezala ari dela zabaltzen azken urteetan?

Bai. Gizartean, hedabideetan, politikan... bazen garaia! Dena den, berdintasun errearen alde emakumezko bezainbat dagokie gizonezkoen ere lan egitea.

HAU ERE BADUGU!

Aiurri astekariko iritzi emaile berriak



Olatz Lasa edota Amaia Senperena lankide gazteak iritzigile atalean fin dabilta. Eta zer esanik ez azken asteotan sinaduren atalean lehen pausoak eman dituzten Beñat Lizaso eta Alba Cabrera urnietarrak ere. Lizasok euskaraz eta futbolaz jardun zuen, epaileen afera pil-pilean zegoenean. Goienak ere tartea eman zion iritzi horri. Martxoaren 8ko atariko modura, joan zen astean Cabrerak matxismoaz eta feminismoaz hitz egin zuen. Estreinaldiak oihartzuna izan du sare sozial ezberdinetan. Iritzi atala nabarmen indartu da Aiurri astekari berriarekin.

Pentsiodunen elkarretaratzeak



Astelehen honetan berriro elkartzu ziren Goikoplazan. Protesta handituz doa, eta andoaindar asko pentsio duinen alde borroka egiteko prest agertzen da. Argazkia Mamen Garciak eskegi zuen FBn. Mila lagun inguru dira herrian pentsioa jasotzen dutenak, beraz, azken urteotako igoera ezak herriko familia askori eragiten die. Valeria Viguera sustatzaileak Aiurrin zioen bezalaxe: "Izugarria da zenbaitek bizi duten prekarietatea. Badago hilabetea 300 edo 400 euroekin pasa behar duen jendea. Ezinezkoa zaio etxean, esaterako, berogailua piztea. Ez dago eskubiderik!". Protestak aurrera darrai. Astelehenero, Goikoplazan.

ITURRI ONETIK

Euskaraldia

"2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz"; horixe da Euskaraldia ekimenak Euskal Herri osorako aurkeztu duen proposamena. Hasiera batean, herri modura izena eman daiteke. Irailetik aurrera, berriz, herritar modura. Andoaingo Udalak Euskaraldia abian jartzeko bilera deialdia egin du datorren asterako. Larramendi Kultur Bazkuna, bere aldetik, 32 orrialdeko aldizkaria lantzen ari da Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin batera.

GORA ETA BEHERA



Aurkezle eta bideratzaile bikaina

Jone Larrañaga ezagun da Euskadi Irratian egiten duen lanagatik. Urtero-urtero 'Martxoak 8, 8 emakume' martxa kalejiran omenduko dituzten ekitaldiko bideratzaile lanetan bikain aritzen da. Ez da batere erraza, omenduak urduri izaten direlako eta jendaurrean aritzeko ohiturarik ez dutelako. Solaskideak goxatzen eta laguntzen maisu da.



AIURRI

Gure esku dago taldearen deialdi garrantzitsua

Martxoaren 12an, astelehenarekin, Urnietako Gure Esku Dago taldeak bilerara deitu ditu urnietarrak. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da Lekaion, ekainaren 10eko giza-kate erraldoia antolatzeari ekiteko

Amaia Senperena URNIETA

Gure Esku Dago ekimenak Euskal Herrian egin den mobilizazioziorik jendetsuenean parte hartzerantz animatu nahi ditu euskal herritarrek. Datorren ekainaren 10ean, eskuz esku, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu nahi dituzte eta, horretarako, 100.000 lagun beharko dituzte. 2014an egin zen giza-kate erraldoiarekin alderatuta, oraingoan 75 kilometro gehiago gehitzea erabaki dute (Durango eta Iruñea lotu zituzten 126,9 kilometroetan zehar). Beraz, aurtengo giza-katearekin 201,9 kilometro lotu nahi dituzte.

Aurtengo plangintzan gainera, ekimenak erabakitze eskubidearen aldeko 2019 arrazoi bilatuko ditu Euskal Herriko herri ezberdinetan zehar. Hori posible izateko, hiriburuetan mahi-inguruak antolatu dituzte, eta baita zenbait herritan solasaldiak ere.

Deialdi berezia urnietarrei, ekimenean parte har dezaten

Ekimen horien aurrean Urnietako Gure Esku Dago taldeak aukera polita ikusi du herria batu eta denen artean giza-katea osatzeko beharrezkoa den parte hartzea lortzeko. Zehazki, Urnietatik datorren 250 pertsona



Ekainaren 10erako 250 urnietarren parte hartzea beharrezko izango dute.. Prestaketa lanetan hasteko bilera deitu dute, datorren astelehenerako. AIURRI

beharko dituzte ekainaren 10erako.

Gauzak horrela, Urnietako Gure Esku Dago taldeak deia zabaldu nahi du. Beste herrietan egin diren ekintzak ikusita, Urnietak ere Gure Esku Dagoaren dinamika ezberdinen bitartez,

GURE ESKU DAGO EKIMENARI BULTZADA EMATEKO BILERA, ASTELEHENEAN 19:00TAN LEKAION

erabakitze eskubidearen aldeko apustua egiteko aukera eskaini nahi die herritarrei.

Bilera Lekaion, astelehenean 19:00etatik aurrera

Datorren martxoaren 12an, Lekaio kultur etxean bilera deitu dute arratsaldeko 19:00etan hasita. Horra Urnietako Gure Esku Dago kideen gonbitea: "Urnietarra bazara eta Euskal Herrian egin den mobilizazioziorik handienean parte hartzeko in-tentziorik baduzu, gerturatu eta parte har ezazu".



URNIETAKO UDALA

Bilketa tasa %70ekoa, urtarrilean

Urnietako Udalak zaborren bilketa sistema berria martxan jarri duenetik, bilketa selektiboan hobekuntza egin du. Urtarrileko datua, esaterako, %70,4koa izan zen. "Bikaina", udal iturrien arabera. Bestalde, merkatariek aurrerantzean errefusa ateratzeko hiru egun izango dituzte: Asteazkena, larunbata eta igandea.

LED teknologia duen argia

Langardan duela aste gutxi ipini eta gero, Urnietako Udalak Lekungo tunelean LED teknologiadun argia ipini duela adierazi du. Oinezkoen segurtasuna bermatze aldera hartu duten neurria izan da. Bide batez, kontsumo aldetik eraginkorra den teknologia erabili dute. Horretarako, LED izeneko argiak ipini dituzte.



URNIETAKO UDALA

Etxeberr plaza

Plazako haur parkea inauterrien atarian itxi zuten, eraberritze lanak egiteko. Hainbat konponketa egin eta gero, erabilgarri dago berriro.

Ez ohiko batzarraldia

Urnietako Udalak ez ohiko plenoa deitu zuen astearte iluntzean, martxoaren 8arekin zerikusia zuten bi mozio ezberdin eztabaidatzeko.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Xabier Lasa URNIETA

Bakarra ez, hirukote zarete. Nortzuk ari zarete Urnietako historia iker-zen?

Eneko Sanz, Javi Bucos eta hirurok osatzen dugu ikerketa taldea; hala ere, gure atzean 1936ko gerra aztergai duten Aranzadi elkarte eta Pako Etxeberriaren talde osoa daude.

Zertan zabilzate une honetan?

Bi eginkizun dauzkagu eskuartean: lan dokumentala –artxiboen arakatzea eta ikertzea– eta antropologikoa –elkarrizketa pertsonalak egitea–. Dokumentazio lanari helduta, era guztietako artxiboak ari gara ikertzen; hala nola, publikoak, elizakoak, militarrek, dokumentu pribatuak eta senitartekoena... Elkarrizketen arloa, berriz, dokumentuen bilketaren osagarri gisa ikusten dugu, ezinbestekoa guretzat.

Izan ere, hankamotz geratuko ginatete historia soilik artxiboetan dagoen informazioa erabiliz egingo bagenu. Horietan ez baitira jasotzen etxeetan, familietan bizitako istorioak. Premiazkoak zaizkigu herritarren testigantzak. Horretarako ireki genuen Oroimenaren Bulegoa Urnietako Udal Artxibategian, jendea bertara hurbil zedin. Hiru urtez luzatuko da gure lana, eta amaieran liburua argitaratuko da. Testigantza eman duten pertsona eta familiei elkarrizketen grabazioak emango zaizkie CD formatoan.

Zuen eginkizuna non hasi eta non bukatzen da?

Historialariak eta antropologoak gara, eta gure ahalegina 1936-1945 epean gertatu zen errealitate ikertzea eta jakinaraztea da, modurik zientifikoenean. Hortik aurrera, eta jasotako kontakizun hori oinarritzat hartuta, justizia egin ahal izateko modua egongo da. Erakunde publikoek, horrela, beharrezko ikusten dituzten aitormen eta omenaldiak egin ahal izango dituzte.

Urnietan, azken aldian, bakeari eta bizikidetzari loturiko ekimenak burutzen ari dira Udalaren eta herritarren eskutik. Zuen proiektuak zer erantsi diezaioke bide horri?

1936ko gerra garaian eta frankismoan zer gertatu zen jakiteak, eta giza eskubideen urraketen antzemateak, nahitaez egin behar dio mesede Urnietaren eta urnietarren bake eta bizikidetzari. Giza eskubideen urraketen lanketak ez du bereizi behar

"Bi aldeetan fusilamenduak izan ziren Urnietan"

OLATZ RETEGI ARANZADI ELKARTEKO ANTROPOLOGOA

Urnietako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak hitzarmena sinatu zuten, 1936-1945 epean giza eskubideen urraketen kontakizuna osatzeko asmoz. Olatz Retegi lekukotzen bilketa lanetan ari da, Urnietan eta urnietarren artean



Lekukotzak jasotzen jarraitzeko prest daudela dio Olatz Retegik. AIURRI

garairik, herririk, banderarik..., eta hortik doa Gogora Institutuaren dinamika ere, Memoria-ren Plaza izeneko ekimenaren eskutik.

Zu egon zara Oroimenaren Bulegoan, jendeari harrera egiten. Jendeak testigantza emateko interesa agertu al du?

Ez da jende piloa hurbildu, baina ez gara kexatuko. Denetik izan da, batzuk testigantza ematera etorri dira, beste batzuk informazioa eskatzera... Geuk ere zenbait gonbidapen luzatu ditugu, lekukotza nahi duten moduan eman dezaten.

Bestalde, Bulegoaren irekierarekin batera bi hitzaldi eskaini genituen. Ez zen urnietar asko agertu; antzeko proiektua aurrera eramaten ari garen tokietan (Deba, Errenteria, Zumaia, Getaria, Donostia...) baino eskasagoa izan zen erantzuna.

Lekukotzak jasotzeko prest al zaudete oraindik?

Bai, noski. Ateak zabalik ditugu edonorentzat, kontsultak egin edota testigantza, datu edo agiriak eman nahi dituenarentzat. Gure ikerketak 1936-1945 epeal-

"DEIGARRIA DA FAMILIA BATZUTAN EMAKUMEEK JASANDAKO ERREPRESIOA"

di historiko hori hartzen du, eta urte haietan Urnietatik kanpo bizi zenak adieraz dezakeena ere gure interesekoa da.

Nola izaten ari da zure bizipena, biktimekin, lekukoekin...?

Oso aberasgarria. Eginkizun hau ez da ariketa matematikoa, ez da ordenagailu baten aurrean egin beharreko jarduna, psikologia behar izaten da. Informazio emaileak pertsona helduak dira asko, biktima zuzenak, eta bere denbora behar izaten dute. Haien erritmora egokitu behar duzu. Behin bi aldeetan arteko komunikazioa martxan jarri denean, ohartzen zara elkarrizketak terapiatik asko daukala. Hirugarren adineko pertsonak premia handia daukate entzunak izateko. Gauza oso interesgarriak daukate kontatzeko, bizitzak eskarmentu handia eman die-lako. Aldi berean, belaunaldien arteko komunikazio falta handia sumatzen dut. Elkarrizketatuen seme-alaba edo bilobei bertan egoteko eskatu diet, askotan gertatzen baita lehen aldiz iraganari eta euren familiari buruzko kontaketa entzuten dituztela.

Gertaeren kontakizun zehatzen gainera, mezu berezirik transmititzen al dituzte?

Bai, gorroto eza. Elkarrizketaren amaieran, gogoeta egiteko eskatzen diet, eta ia denek gorrotoa baztertu egin behar dutela diote. Bestalde, ederki enpatizatzen dute gaur egun gatazka belikoei eraginda munduan zehar dabil-tzan errefuxiatuekin. Bakearen sentimendua oso barneratua daukate, hurrengo belaunaldi-koak garenok baino gehiago.

Garai harekin loturiko sufrimendu handia topatzen ari al zara Urnietan?

Euskal Herriko gainerako herritan bezainbat. Alde bateko zein besteko jendea iruzitza egokitu zitzaion. Izan baserritar, izan kaletar, izan karlista edo abertzale, minaren kontakizuna antzekoa da.

Urnietakoa nahiko kasu berezia dela esango nuke. Beste herri askotan ez bezala, Urnietan bi aldeetako fusilamenduak gertatu ziren.

Beste ezerk eragin dizu aparteko arreta?

Emakumeen aurkako errepre-sioa, bereziki familia batzuegan. Errealitate horri buruz, adibidez, artxiboek ez dute ezer aipatzen. Beste zenbait herritan ez zaigu halakorik agertzen.



Esti Mujika Berdintasun eta Kultura zinegotziarekin batera, aurtengo omenduak: Marta Diez, Ainhoa Zabala eta Ihintza Oiartzabal, Miren Dominguez, Izorne Tena, Nora Mendizabal, Maite Olmeño, Miren Erkizia, Susana Cencillo, Marisol

Egunerokoan eredu dira

Zazpigarren kalejirari ekingo diote larunbat honetan, pausoz pauso, berdintasunerantz egiten dena. Pertsona arruntak dira, itzaletik argira ekarri nahi dituztenak. Herrikideen aitortza jasoko dute, egunerokoan eredu baitira

Erredakzioa ANDOAIN

“Mezu sinbolikoa eman nahi dugu, emakumeek urtetan izan ez duten errekonozimendua argitara ateratzea”, horixe izan zen aurtengo omenduen aurkezpenean Jone Larrañaga kazetariak adierazitakoa. Basteroko ekitaldia egunerokoan eredu diren herrikide anonimoak eza-gutzeko aukera polita izaten da. Autengoan, hauexek izango dira omenduko dituztenak: Rosi Arregi, Susana Cencillo, Marta Diez, Miren Erkizia, Marisol Fernandez, Nora Mendizabal, Maite Olmeño, Izorne Tena, Miren

Dominguez, Ainhoa Zabala eta Ihintza Oiartzabal alaba eta Goiyta Zubillaga.

Eredu diren herrikide anonimo horietako batzuren lekukotza hunkigarria izan ohi da. Iaz, esaterako, bertaratu zen jendea aho bete hortz geratu zen Miren Etxezarretaren lekukotzarekin. Ezintasun fisikoak eraginda, egunerokotasunean gurpildun aulkia behar-beharrezkoa izaten du. Txundigarria izan zen gainerakoei erakutsi zien barne indarra eta umorea. Txalo zaparrada jaso zuen. Aurtengo omenduen artetik biren lekukotzak

nabarmendu behar dira, Marta Diezena eta Maite Olmeñorena. Emozioa, indarra eta poza: Sentimendu horiek azalerazi zituzten, maitasunez eta minez, bakoitzak bere bizipenetatik abiatuta.

Maite Olmeño erizain laguntzailea pozarren zegoen herrikideek bere hautagaitza proposatu zutelako: “Oso hunkituta nago, ez nuen horrelakorik espero. Eta aurtun jubilatzen naitenez, hauxe da jasoko dudana oparirik onena. Ilusio handiz jaso dut aitortza, emakume normaltzat hartzen dut nire burua, eta neu hona ekarri nauten

emakumeak ere halakoxeak dira: arruntak. Urteak eta urteak dira kontsultan elkar ikusi dugula, geure bizitza eta arazoak partekatuz, beraz zer hobea aitortza hau jasotzea baino. Zoriontsua naiz”. Eta, segidan, emakumeen eskubideen aldeko aitortza sutua egin zuen: “Ginekologia zerbitzua Andoaingo emakumeen garai-pena izan zen, emakumeek zerbitzu hori ezartzeko borroka egin zutelako. Uste bat badut: Emakumeen lorpenak, borrokatu gabe, ez direla inoiz lortuko. Aurrera egin eta honakoa edo bestelakoa behar dugu, aldarrikatu behar da. Ez badugu borroka egiten, hainbat lorpen galtzeko arriskua dugu. Ia ohar-kabeen joango gara eskubide horiek galtzen..., borroka egiten jarraitzea dagokigu. Gazteak zaretenean behar asko dituzue, eta adinean gora goazenok, ikusten duzue pentsiodunak kalean nola dauden! Akaso Espainiako Gobernua aldatzea lortuko dugu”. Azken esaldi horrekin ikusle-goaren algarak eragin zituen. Pertsona arruntentz botezaren aldeko adierazpen sutua izan zen, zalantzarik gabe, Maite Olmeñorena. Bere adierazpenak,

ikusleen aldetik, txalo zaparrada jaso zuen.

Maite ondo eta gertutik eza-gutzen duen horietakoa Marta Diez da. Hunkituta zegoen, negar malkotan, eta hainbat unetan hitza hartzea ezinezko egiten zitzaion: “2015ean bularreko minbiziua nuela esan zidaten, eta lau hilabetera gaixotasunean berriro erori nintzen. Urtebete-ko alaba eta lau urteko mutikoa nituela, bizitza bitan hautsi zitzaidan. Minbiziua nuela jakitean, lehenengo eta behin euren pentsatu nuen. *Ezin ditut utzi*, izan zen nire lehen pentsamendua. *Eurengandik egon behar dut hemen*, nioen. Urtebete da bigarren tratamendua amaitu nuela, eta dena ondo doa. Dagoeneko alabak 4 urte ditu, eta semeak 7. Sekulako indarra eman didate, aurrera egiteko. Bidean emakumezko indartsu ugari ezagutu ditut, eta euren indar

**BASTERO PLAZATIK
IRTEGOKI DA
BERDINTASUNAREN
ALDEKO KALEJIRA,
EGUERDIKO 12:00TAN**



Marisol Fernandez, Rosi Arregi eta Goyita Zubillaga. AIURRI

eta animoei esker ere atera naiz aurrera. Gogorra, baina prozesua betegarria izan da, pertsona bikainak ezagutu ditudalako. Txikikeriekin tematzen gara, baina bizitza da handiena". Ezinezkoa zen emozioari eustea, ekitaldiko

unerik hunkigarrienak Diezen lekukotzarekin iritsi ziren.

Gainerako omenduak

Gizarte mailan Rosi Arregi, Goyita Zubillaga eta Marisol Fernandez duela 50 urte Agustin

Leitza kalean zabaldu zuten *Centro de mujeres* heziketa gureko kideak omenduko dituzte. Eskola modukoa izan zen, emakumeen garapenerako garrantzia handikoa. Gizarte mailan ere, Miren Erkizia emakume nekazina da. Ikastolako udalekueetan, Andoaingo Guduko jostungintzan edota Sahararen aldeko elikagaien bilketan lan eskerga egin ohi du. Ehiza gizonezkoen mundua izaten da eta hortxe eroso dabilzala aitortu zuten Izorne Tenak eta Miren Dominguezek: "Oso babestuta gaude". Kulturean, Susana Cencillo ekintzailea nabarmendu zuten. 18 urte dira akademia ireki zuenetik, eta geroztik hamaika kalejiratan ikusi dugu. Ainhoa Zabala ere ekintzailea da. Denda baten arduraduna da, eta Ihintzaren ama. Biek ere bizitza erabat baldintzatuta daukate, Asier bikotea eta aita ehunka kilometrorra espetxean dutelako. Kirol mailan, Nora Mendizabal omenduko dute. Ez dira asko pilota munduan dabiltzanak, baina horiexek gogotsu daudela erakutsi dute. Larunbat honetan, Goikoplazan jasoko dute herrikideen omenaldia.



Yolanda Pastor Lopezek Esti Mujikaren eskutik jaso zuen saria. AIURRI

Kartel lehiaketaren sari banaketa

Emakume gazte eta irribartsu baten argazkian oinarriturik, diseinu grafikoaren teknika ezberdinak erabilita, lehiaketara hautagaitza aurkeztu zuen Yolanda Pastorrek. Epaimahaiak bere lana lehenetsi du, gainerako hautagaien lanen gainetik.



Udaletxearen atzealdean paperez osaturiko paneltoak ipini dituzte. AIURRI

Algodonerako emakumeak gogoan

Jabekuntza eskola martxan da, eta lehenetako jarduera kalean ekimen artistikoa egitea izan da. Silvia Ayerra izan zen dinamizatzailea eta dagoeneko ikusgai dago Udaletxearen atzealdean, San Martin Tours elizara doan aldapatxoan.



Itxaso Mendiluze Bastero plazan, Ondarreta kaleko eraikinean dagoen aintzinako argazki erraldoiaren ondoan. Ostiraletik aurrera Basteroko erakusketa gelan hainbat argazki zahar izango dira ikusgai. AIURRI

Mendiluzek zuzendutako argazki erakusketa

Greba deialdia dela eta, martxoaren 9an egingo dute erakusketaren irekiera ekitaldia. "Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak" izenburupean, historian zehar emakumeek izan duten garrantzia aldarrikatu nahi du Basteroko erakusketak

Erredakzioa AIURRI

"Andre zirenez eta etxeko lanak egiten zituztenez, ahanzi egin dugu parte hori", Jon Abril *Neskatoak* dokumentalaren zuzendariaren hitzak dira horiek. 2016an aurkeztu zuen dokumentala, Baztan-Bidasoa aldeko emakumeak gogoan hartzen dituen. Orduko emakume haiek, han eta hemen, funtzio sozial garrantzitsua bete zuten. Familiak handiak izaten ziren, gerra ondoko egoera iluna zen, eta emakume horien ekarpena berebizikoa izan zen. Etxe barruko ekonomia bideratzeko ezinbestekoa. Jon Abrilek mugaz bestaldera lanera joan behar zuten lekukotzak bildu zituen bezalaxe, Itxaso Mendiluzek andoaindarren herri barruko historian arakatu du.

Ostiral honetan zabalduko dituzte erakusketaren atak

Lan horren lehen emaitza ostiral honetan zabalduko den argazki erakusketan ikusi ahal

izango da, Basteroko erakusketak gelan. Emakume langilegari erreparatu dio, bata eta bestea bereiztea ezinezkoa baita. Iraganeko Andoaingo emakume haiei aurpegia eta izen-abizenak jarri dizkie. Argazki bakoitzaren ondoan azalpen txiki bat joango da, ogibidea zehaztuz, lantoki edo merkatalgunearen izena aipatuz, zein kaletan kokatzen zen erantsiz...

Izan ere, maiz, etxeko gizonaren izena hartu izan dute tabernetek, nahiz eta emakume bat edo gehiago izan negozioak aurrera eramaten zituztenak. Tabernetan zerbitzatzen edo sukaldean aritu zirenen errealitatea iluntasunetik argitara ateratzea justiazkoa da.

HOGEITA HAMABOST EMAKUMEREN ISTORIOAK IKUSGAI IZANGO DIRA BASTERON

Andoaingo garai hartako neskatok dira –gaurko amak, amonak, birramonak izango direnak– erakusketaren protagonistak. Aiurri hamaboskariari aitortu zionez, Mendiluzerentzat erakusketaren ekoizpen prozesua ezusteko atsegina izan da: "Bizipen zoragarria suertatzen ari zait. Urtetan aurrera doazen herritarrekin jarri naiz harremanetan, eta Andoaingo iraganeko kontu ugari jakinarazi dizkide; oso eskertuta nago guztiekin. Konturatu naiz erakusketak Andoaingo historia hurbila kontatzeko eta agertzeko modu egokia izan litekeela. Artxiboetan oso gutxitan ageri ohi den informazioa izan arren, gure aurreko emakumeen egunerokotasuna islatzen du".

Trilogiaren lehen zatia

Arakatu eta informazioa bilduz, oraingo honetan 35 emakumeren istorioak ikusgai ipiniko ditu. Beste bi erakusketa gehiago egiteko materiala ere pilatu du.



GORKA BRAVO

'Giltzadun etxea' Basteron

Ainhoa Aierbe, Mireia Gabilondo eta Vito Rogado aktoreak taula-gainera igoko dira, Ainara LeGardon musikariarekin batera. Egunerokotasuna islatzen duten momentuen bitartez, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako bi egoitzatako bizitza biluztuko dute. Andoainen ikusgai izango da ostiral honetan, gaueko 21:30ean hasita.



E. MORENO ESQUIVEL

'Hiru emakume' Saroben

Antzezlanaren aurrestreinaldia egingo dute Urnietan, larunbat honetan 19:00etatik aurrera. Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, hiru aktore ezagun arituko dira taula-gainera: Ainhoa Etxebarria, Ylenia Baglietto eta Ane Pikaza. Antzezlanaren euskaraz da, eta dohainik. Gonbidapenak dagoeneko Saroben bertan jaso daitezke.

Mailu Arruti, aktore lanetan

Don Inorrez euskal musikan proposamen berria da, eta taldea aurkezteko, Hiru Damatxo Donostiako ekoizpen etxeak bideoklipa aurkeztu berri du. Protagonista nagusiaren paperean Mailu Arruti ageri da, amonarena egiten. Dagoeneko internet sarean ikusgai dago "Kristoren gonbidapena" kantuaren bideoklipa.



HIRU DAMATXO

111 Akademia Saria

Saria erabaki ahal izateko, literatur akademiak bost hautagai aukeratu ditu: Agirre, Zubeldia, Ladron Arana, Alberdi eta Urdinaga. Martxoaren 15a baino lehen bidali beharko dute akademiakideek horietako baten aldeko botoa

Erredakzioa ANDOAIN

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak sustatzen du literaturzaleen 111 Akademia ekimena. Irakurleek, urtean zehar argitaratu diren lanen artean, liburu bat saritu ohi dute. Saridun izan dira, besteak beste, Kirmen Uribe, Ramon Saizarbitoria, Miren Agur Meabe, Lourdes Oñederra, Koldo Izaguirre edota Anjel Lertxundi.

Beterrri-Buruntzan oinarri duen lehiaketa da, nahiz eta Akademiak Euskal Herri osoko kideak dituen. Aurtengo saria erabakitzeko lehen urratsak eman dituzte. Bost lan hauen artean erabakiko da saria:

- Alaine Agirre: Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama.

- Maddi Zubeldia: Deserria haurtzaro.
- Alberto Ladron Arana: Jainkoen zigorra.
- Uxue Alberdi: Jenisjoplin.
- Iñigo Urdinaga: Surflaria eta paradisia. Lehenengo bozketa txandan, 83 akademiakidek eman dute botoa. Urtero bezala, bigarren eta, halakorik balego, hirugarren txandetan kopuru horrek gora egitea espero dute Akademiako arduradunek, bozketek aurrera egin ahala handitzen joaten baita irakurketan eta ondoriozko bozketan parte hartzen dutenen kopurua. Sarituaren izena apirilaren azkenean emango dute ezagutzera.



Uxue Alberdi bertsolari eta idazlearen Jenisjoplin (Susa argitaletxea) azken nobela Durangoko Azokan salduenen artean izan zen. BIZKAIA IRRATIA



AIURRI

Andaluziako eguna Andoainen

Dantza, kantua eta umorea nagusitu ziren Triana elkarrekin Andaluziaren egunerako antolatutako asteburuan. Txokolate eta txurro jatea, haur marraketa, bazkaria..., larunbatean hasita, ospakizun betean izan ziren Andoainen. Folklore saioko argazkiak eta bideoa, aiurri.eus webgunean ikusgai daude.



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Gipuzkoaren etorkizuna
guztion ardura da. Eraiki
dezagun guztion artean.
Aurrea hartzea da
horretarako modu
hoberena.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

Dozenaka lagun Lilatoian

LASTERKETA 83 lasterkari abiatu ziren Andoaindik Donostiara, eta beste 50 gehiago Urnietatik. Junior mailako lasterkariak ikus zitezkeen Donostiako kaleetan, baina baita 60 urtetik gorako lasterkariak ere. Belaunaldi ezberdinen topagune bilakatu da



Irati Amondarain, Ainara Loyarte eta haren lehengusu Amaia del Rio, iritsieran.



Ester Arizmendi eta Maialen Santa Kruz ama-alabak, helmuga zeharkatuta.



Angela eta Maria Pilar Alamo ahizpak pozarren, Kursaal parean.

URNIETA

20:11 Eva Esnaola
22:26 Elena Santervas
23:23 Margot Madina
23:35 Ainhoa Ziaurritz
24:22 Almu Salas
24:23 Intza Cabrera
27:05 Amaia Martin
27:05 Izaro Rodriguez
27:14 Garazi Usabiaga
29:12 Pilare Goenaga
29:12 Aizpea Goenaga
29:13 Maria Rosario
29:46 Naiara Sanchez
30:28 Irati Nogales
30:28 Izaskun Labat
30:56 Leire Sardon
31:57 Ane Marin
31:58 Irati De Torres
32:40 Maria Perez
32:42 Maider Iriberrri
33:33 Mariivi Garcia
33:48 Marijo Moran
33:49 Adara Jimenez
34:03 Ainhoa Jauregi
34:27 Amaia Mellado
34:27 Ane Arruti
34:33 Maider Dorronsoro
35:05 Arantza Miguez
35:06 Maddalen Kortaj.
36:34 Alba Quel
37:03 Aitziber Uranga
37:07 Maialen Izagirre
37:23 Nerea Aranburu
37:40 M. Josebe Martin
37:49 Helena Unanue
38:01 Andrea Poza
38:15 Leire Lomeña
38:15 Garazi Ramirez
38:16 Janire Mujika
39:21 Kristina Mutuberría

39:37 Ana Rodriguez
39:55 Arantzasu Iturbe
40:13 Corinna Jochim
40:40 Amaia Rodriguez
40:41 Leire Aira
40:46 Leyre Gonzalez
40:55 Marijo Sarobe
42:04 Almudena Alvarez
42:28 Sheila Diaz
42:44 Maddi Vazquez

ANDOAIN

24:28 Igone Beraza
26:38 Idoia Mendiluze
27:05 Iosune Agirre
27:18 Erika Tejido
27:38 Sheila Martin
27:56 Olatz Telletxea
28:20 Leyre Rodriguez
28:21 Araitz Gonzalez
28:57 Pili Lazaro
29:36 Laura Corchero
29:45 Ana Talavera
29:50 Leire Martin
29:50 Olatz Muxika
30:07 Marga Zalakain
30:11 Ainhoa Igarritz
30:19 Haize Lasa

30:19 Shua Lasa
30:20 Yosune Sutil
30:50 Ariane Obineta
30:54 Maialen Santa Kruz
30:54 Ester Arizmendi
31:01 Ilazki Mujika
31:02 Xare Irulegi
31:08 Maria Isabel
31:08 Maider Lainez
31:08 Miren Itziar Arregi
31:08 Iraia Privado
31:12 Leire Apalategi
31:14 Maialen Elizondo
31:14 Aiora Alkorta
31:14 Irene Jauregi
31:14 Marijo Goikoetxea
31:14 Nagor Alkorta
31:29 Brenda Garcia
32:49 Kariñe Errazkin
32:50 Leire Tapia
32:53 Nerea Hernandez
32:59 Nerea Alvario
32:59 Conchi Palacin
32:59 Marisa Palacin
33:27 Ana Saez Ocariz
33:45 Goiatz Salvador
34:37 Haizea Zabala
35:03 Maider Arano
35:03 Sara Rodriguez

35:03 Iuri Etxeberria
35:05 Julia Segovia
35:44 Ana Aberasturi
36:00 Nahia Sarasola
36:01 Zuriñe Diez
36:19 Miriam Rica
36:22 Aitziber Sarasola
36:30 Maite Lazcoz
36:32 Laura Casals
37:07 Nekane Zabala
37:26 Ainhoa Lizeaga
37:39 Miren Iztueta
37:40 Esti Balentziaga
37:41 Eider Lopez
37:41 Leire Garmendia
37:42 Maialen Obineta
38:01 Maialen Galdos
38:16 Angela Alamo
38:29 Kristina Jauregi
38:34 Garbiñe Diaz
38:34 Maria Luz Guzman
38:34 Irene Cardaba
38:35 Maria Cuni
38:41 Raisa Gonzalez
39:48 Maitane Arroyo
40:00 June Montejo
40:02 Maria Isabel Lopez
40:02 Raquel Conde
40:05 Virginia Peña
40:14 Ainara Martin
40:21 Ainhoa Moreno
40:25 Nieves Alonso
40:33 Rosa Roldan
41:05 Ainara Loiarde
41:05 Irati Amondarain
41:58 Olena Shpak
42:17 Leire Olaetxea
43:40 Nazara Arregi
Oharra*: Kirolprobak.com gunetik ateratako denborak.



Miren Zabala, Garazi Usabiaga eta Intza Cabrera.



NIRE USTEZ

ARANTZA ETXEBERRIA IRAKASLEA

Ipar martxaren martxa

Euskal Herrian badugu ibiltzeko zaletasuna, hondartzan itsasertzean, mendiko magaletan gora eta behera, erreka bazterretako lautadetan..., edonon ikusi daiteke adin ezberdineko jendea oinez, ariketa fisikoa eginez, pasiajan lasai, edo abiada bizian... Aspalditik datorkigu hurrirtza makilaren laguntzaz baliatzea ibilaldi hauetan. Baina azken urteetan Europa iparraldeko herrialdeetatik datorren ohitura hedatu da. Han neguan elurretan eskien irristatzea maite zutenei, luze egiten zitzairen elurrik gabeko unea, eta garai horietan bi makilez baliatzen hasi ziren oinez ibiltzeko, "Nordic walking" izena jarri ere. Globalizazioaren ondorioz, hori ere iritsi zen gurera... Edozein kirol erregulariki egiteak bere onura dakar, dena bezala egoki eta neurrian egiten bada. Ipar martxak oinez ibiltzeari beste mugimendu hauek ere gehitzen dizkio: oinak eta hankak erabiltzeaz gain, bi besoak ere martxan jartzen dituela; bizkarra zuzen eramaten laguntzen duela; sorbaldak mokorrarekiko biratzen direla; eskuek bastoiak askatu eta helduz joaten direnez, ireki eta itxi egiten dutela... beraz ibiltze soilaz gain gorputzeko atal gehiagok lan egiten dutela eta energia gehiago erretzen dela.

TEKNIKA IKASTEA KOMENI DA, ONGI EGITEN IKASTEKO ETA OHITURA TXARRAK HARTZEA SAIHESTEKO

Jakina da naturara joan eta ibiltzea osasuntsua dela berez, arnasa sakonago, garbiago hartzen dugula. Baina teknika hau erabiliz oxigeno gehiago iristen da gure odolera giharrek lan gehiago egiten baitute. Ipar martxaren onuren artean aipatzen da serotonina maila ere igo egiten dela, gure

aldartean eraginez. Baina ipar martxaren teknika ikastea komeni da, ongi egiten ikasteko eta ohitura txarrak hartzea saihesteko. Teknika ikasteko bizpahiru orduko ikastaro batekin aski da, eta gaur egun badira ongi prestatuturiko monitoreak nonahi.

Oinez ibiltzea gustuko baduzue, ipar martxaren martxa ezagutzera animatu nahi zaituztet, polita da, atsegina...

KARTELDEGIA: SASKIBALOA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOA	
SENIOR MAILA	
EMAITZA	
Bosteko B-Ganbara	60-54
SAILKAPENA	
1 Zarautz	36 puntu
9 Alde Zaharra B	27 puntu
10 Ganbara	26 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
19:15 Ganbara-Internacional / Lar, 10	
KADETE MAILA	
EMAITZA	
Ganbara-Guadalupekoa	69-70
SAILKAPENA	
1 Goierri-Goierri Bus	2 puntu
3 Ama Guadalupekoa	2 puntu
4 Ganbara	1 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:15 Hernani-Ganbara / Lar, 10	

ARETO FUTBOLA	
SENIOR MAILA	
EMAITZA	
Anoeta-Euskalduna	2-4
SAILKAPENA	
1 Hirukide	40 puntu
3 Tolargi	36 puntu
4 Euskalduna	34 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
21:10 Euskalduna-Hirukide / Osteg, 8	
ANDOAINGO TXAPELKETA	
EMAITZAK	
Ekaitz-Dad Kutxa	8-5
Keler-Ganbara	9-0
H. Extremeño-Lanbroa	1-1
Powerade-Lanbroa	3-4
H. Extremeño-Ekhia	4-3
C. Extremeño-Academia GF	4-3
Irunberri-Academia London	5-2
Txalaka-Gorostidi	11-4
Olajauna-Akerbeltz	1-7

Ezagutzera ematea helburu duen txapelketa

JUDO Kadete eta infantil mailako 150 neska-mutilek hartuko dute parte Gipuzkoako Judo txapelketan; datorren martxoaren 17an Urnietako kiroldegian jokatu da. Horietatik bederatzi urnietarrak dira

Olatz Lasa URNIETA

Urnietako kiroldegian izango da Gipuzkoako Judo txapelketa, datorren martxoaren 17an. 16:30ean hasiko da infantil mailakoekin, eta ondoren kadeteen txanda izango da. Lehia guztiak amaitzean ekingo diote sari-banaketari. Jorge Segurado Urnietako zinegotziak ekitaldiaren aurkezpenean adierazi duenez, "txapelketa judo gertutik ezagutzeko balioko du".

Urnietarren parte hartzea

Infantil mailan arituko dira Alaitz Karrera, Julen Pagola eta Yerai Martinez; kadete mailan, berriz, Amets Karrera, Oier Duran, David Blanco, Joseba Gomez, Adrian Garcia eta Bachuki.

Azpimarratzekoa da Amets Karrerak iaz eskuratutako urrezko domina, 66 kilotik gorako infantil mailan. Espainiako Supercopan brontzea eskuratu zuen abenduan. Kadete mailara igo da aurten.



Urnietako judokak iazko maiatzean emandako erakustaldian. AIURRI

Emakumezko nahiz gizonezko

Emakumeek nahiz gizonek praktikatu dezaketen kirola dela azpimarratu du Iker Lizarribar Adarra taldeko entrenatzaileak: "Askok judo gizonen kirol jarduera gisa ikusiko dute, bai

na ez da horrela. Geroz eta emakume gehiagok izena ematen du, eta normaltasun osoz entrenatzen eta lehiatzen dira". Banaketak pisuaren arabera egiten dituztela gehitu du, sexua zein den kontutan hartu gabe.



AIURRI

Diputazioa txapelketako finala jokatu dute

ESKUBALOIA Kadete mailako nesken artean joan zen asteburua borobila izan zen, Leizaran urdina taldea garaitu baitzuten Allurralde kiroldegian (24-26), eta garaipen horri esker Diputazioa txapelketako finala jokatzeko txartela eskuratu baitute. Datozen bi

asteburuetan jokatu da, joan eta itzuliko partida banatan. Bidasoa izango dute aurkari. Animoz eta ilusioz gainezka daude urnietarrak. Emozioz beteriko sailkapena izan da, 'gol average' delakoari esker lortu baitute finalerako sailkapena.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Euskalduna-Billabona	3-1
Allerru-Urnieta	6-2

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Sanpedro.-Euskalduna / Lar, 10
16:00	Urnieta-Trintxerpe / Lar, 10

ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Mundarro-Euskalduna / Ig, 11
-------	------------------------------

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA

Urnieta-Beti Gazte	2-1
--------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Ostadar-Urnieta / Lar, 10
-------	---------------------------

KOPA, NESKAK

EMAITZA

Axular-Euskalduna	1-2
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00	Euskalduna-Hernani / Lar, 10
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Lengokoak B-Euskalduna A	1-0
Urnieta A-Zestoa	1-0

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Allerru A-Euskalduna A / Lar, 10
17:30	Lengokoak B-Urnieta A / Ig, 11

KOPA

EMAITZA

Urnieta B-Ordizia	3-4
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Segura Goierri-Urnieta B / Lar, 10
17:15	Euskalduna B-Ordizia / Lar, 10

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, OHOREZKO MAILA

Real Union-Euskalduna	2-0
-----------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Touring / Lar, 10
-------	------------------------------

EMAITZAK, KOPA

Sporting B-Urnieta	0-3
Euskalduna-Lazkao	3-1

ASTEBURUKO PARTIDAK 4-7MUL.

10:30	Urnieta-Lizeoa B / Lar, 10
15:30	Danena B-Euskalduna / Lar, 10

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Zumaiako-Urnieta	9-0
------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

10:15	Intxaurdi B-Urnieta / Lar, 10
-------	-------------------------------

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Leizaran-Pulpo	26-26
Urnieta-Soraluze	26-27

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:15	Urola-Leizaran / Lar, 10
18:30	Urnieta-Aloña Mendi / Lar, 10

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Urdaibai-Urnieta	33-25
Zeppelin-Leizaran	20-23

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Urnieta-Ibaizabal / Ig, 11
11:45	Leizaran-CB Urduliz / Ig, 11

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK

Leizaran-Hettich ZKE	29-30
Irun-Urnieta	27-32

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30	Urnieta-Leizaran / Ig, 11
-------	---------------------------

JUBENIL MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Eibar-Urnieta	22-16
Leizaran-Aiala ZKE	13-22

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Urnieta-Elgoibar / Lar, 10
11:00	Bergara-Leizaran / Ig, 11

KADETE MAILA, MUTILAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Urnieta-Urola EK A	30-28
Leizaran-Ereintza	48-20

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:45	Bidasoa Irun-Urnieta / Lar, 10
11:45	Leizaran-Hernani / Lar, 10

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Irun B-Leizaran Horia	32-12
-----------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Leizaran Horia-Egia / Lar, 10
-------	-------------------------------

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZA

Leizaran Urdina-Urnieta	24-26
-------------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:45	Urnieta-Bidasoa Irun A / Lar, 10
10:00	Aiala B-Leizaran Urdina / Lar, 10

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 8

ESKUALDEA Greba deialdia

Martxoak 8an hainbat sindikatuk eta herri mugimenduk greba deitu dute, emakumeen eskubideen alde.
11:00-15:00 / 18:00-22:00.

ANDOAIN Mobilizazioa

Martxoak 8an, greba egunerako, Andoaingo Asanblada Feministak antolatu duen azken hitzordua.
18:00 Zumea plaza.

URNIETA Elkarretaratzea

Martxoak 8arekin bat eginez, Udalak elkarretaratzea antolatu du.
18:00 San Juan plaza.

ANDOAIN Erakusketa

"Andoaingo emakumeak Euskalduna Futbol Elkartean" erakusketa.
Martxoaren 8tik 11ra.
Juanita Alkain plaza, egun osoan.

OSTIRALA 9

ANDOAIN Erakusketa

"Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak", Itxaso Mendiluze.
Bastero, 19:00. Irekiera.

ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa tailer irekia.
Gazte Lokala, 17:15.

ANDOAIN Antzerkia

Giltzadun Etxea, Tanitakaren antzezlan euskaraz.
Bastero, 21:30.

URRETXU Antzerkia

Urnietako taldeak Urretxuko lehiaketako finalean parte hartuko du.
Labeaga aretoa, 21:30.

LARUNBATA 10

ANDOAIN Martxa-kalejira

"Pausoz Pauso" kalejira, aurtengo omenduen parte hartzearekin.
Bastero plaza, 12:00.

ANDOAIN Bazkaria

Emakumeen bazkaria, Zuena elkartearen eskutik.
Oianume, 14:00.

**ANDOAIN "Euskaraldia: 11 egun euskaraz"**

Udalaren deialdia: "Andoainek ere parte izan behar duela iritzita, euskararengandik gertu zaudeten herritar eta erakundeengana jotzen du Andoaingo Udalak, herri mailako Euskaraldia elkarrekin abiatzeko proposamena luzatuz".

Martxoak 14, asteazkena. 19:00. Bastero Kulturunea, ekitaldi aretoa.

ANDOAIN Tailerra

Kamixetak egiteko tailerra.
Gazte Lokala, 17:30.

URNIETA Antzerkia

"Hiru emakume" antzezlanaren aurre estreinaldia.
Gonbidapena behar da.
Sarobe, 19:00.

ANDOAIN Kontzertua

The Friday's Crew eta Bultz taldeak.
Gaztetxea, 22:30.

IGANDEA 11

ANDOAIN Bertso bazkaria

Beñat Gaztelumendi eta Aitor Mendiluze. Txartela erosteko azken eguna hilaren 8a, Irunberrin bertan.
Antolatzailea: Punttuka bertso eskola.
Irunberri, 14:00.

ANDOAIN Antzerkia

"Izar" ikuskizuna Marie de Jongh teatroaren eskutik. Sarrera: 4 euro.
Bastero, 17:00.

ANDOAIN Musika

Clara Peya pianistaren "Oceanes" emanaldia.
Bastero, 20:00.

ASTEAZKENA 14

ANDOAIN Aurkezpena

"Luhuso, ETAre armagabetze zibilaren kontakizuna", Enekoitz Esnaola liburuaren egilearen eskutik.
Irunberri, 19:30.

OSTEGUNA 15

URNIETA Odol ematea

Odol emaleen hitzordua.
Anbulatorio zaharra, 18:30-20:30.

OSTIRALA 16

ANDOAIN Dantza

"Hormek diote, on stage", Haatik.
Bastero, 21:30.

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Tabernerri ipuin kontalaria.
Sarobe, 17:30.

LARUNBATA 17

ANDOAIN Musika

Klarinete laukote jaialdia.
Bastero, 10:00.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO**

Los archivos del Pentágono
Larunbata, 10:
19:30; 22:00.
Igandea, 11: 19:30.
Astelehena, 12:
19:30; 22:00.

El Cuaderno de Sara

Larunbata, 17:
19:30; 22:00.
Ig, 18: 19:30.
Astelehena, 20:
19:30; 22:00.
Sola en casa
Larunbata, 17;
Igandea, 18: 17:00

**URNIETA****SAROBE**

Figuras ocultas
Ostirala, 9: 19:00.
Igandea, 11:
19:00.
Bunch Oihaneko kuadrilla
Igandea, 18: 17:00.

SINOPSIAK

**Figuras ocultas**

Zuz.: Theodore Melfi. **Herr.:** Estatu Batuak (2016). **Iraupena:** 127 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelera.

3 emakume afroamerikar NASA-n

60. hamarkada hasiera da. Protagonistak NASA-n lan egiten duten hiru emakume

afroamerikar dira, eta helburua John Glenn astronauta espaziora bidaltzea da.

Los archivos del Pentágono

Zuz.: Steven Spielberg. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Aktoreak:** Meryl Streep, Tom Hanks, Bob Odenkirk,... **Iraupena:** 116 minutu.

Adierazpen askatasunaren balioa

1971eko ekainean adierazpen askatasunaren aldeko jarrera hartu zuten Estatu Batuetako egunkari nagusienek. Pentagonoari buruzko berriak zabaltzen zituzten, gobernuak

ezkutututako sekretuak agerian utziz. Post egunkariko Graham editoreak eta Bradley zuzendariak gainbeheran zegoen egunkaria altxatzea izango dute helburu.

Zurriburri antzerki taldea

Zurriburri taldea Urretxuko antzerki lehiaketako finalean arituko da, ostiral honetan, Labeaga aretoan gaueko 21:30etik aurrera. Irungo Txiflando, Donostia-Azkoitiako Txinparta eta Irun-Hondarribiko Las Chirlas taldeekin batera, Urnietako antzerki taldea azken Urnietarrak txanpan izango da. Urnietarrak ikuslegoaren botoari esker

sailkatu dira. "La cita" antzezlan eskainiko dute berriro, eta ondoren sari banaketaren zain izango dira. Antzezlan honetan aktore lanetan ari dira Belen Merino, Esther Modia, Ixidro Salinas, Juankar Erasun, Julio Nogales eta Lupe Herrero. Mikel Agirregomezkorta, berriz, zuzendari lanetan ari da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Mara

Martxoaren 8an Marak
9 urte beteko ditu.
Aurten bai,
kriston festa
ospatutako dugu.



URNIETA
Amona

Gure etxeko
amonarentzako
92 muxu!
Zorionak!
Maite zaitugu.



ANDOAIN
Iker Miguez Bellón

Ikerrek 6 urte
beteko ditu martxoaren
26an. Muxu pila bat.
Asko maite zaitugu.
Aita eta ama.

ZOZKETA

BERTSO SAIORAKO 2 SARRERA

Aiurrik harpidedunen artean
Sahararen aldeko bertso saiorako
bi sarrera zozketatuko ditu.
Martxoaren 18ra bitarte parte har
daiteke zozketan, aukera hauen
guztien artean:
Whatsapp bidez:
619 163 537. Hitz gakoa: 'Bertsoa'
E-postaz:
diseinua@aiurri.eus.
Telefonoz: 943 300 732.

TELEFONO ZENBAKIAK

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 10 eta igandea 11
ARZALLUS: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 10 eta igandea 11
ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.
943 551 793. Hernani.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

MAR
TXO
AREN
6TIK
20RA

HAFAR HEGGALDEKO UZTA
ESKUTIK ESKURA

 ZUBI BAT
SUKALDERA

ESKATU OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
ETA 12 ONTZIKO KONTSERBA-LOTE
KONBENTZIONAL EDOTA EKOLOGIKOAK
JATORRIZKO PREZIOAN ETA EUSKARAZ
HERRIZ HERRI EDO ERRIGORA.EUS GUNEAN



OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA (5 LITROKO BIDOIAK) APIRILEAN JASO ETA ORDAINDU





KONTSERBA-LOTEAK (PRODUKTUKO 12 ONTZI) EKAINEAN JASO ETA ORDAINDU



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean,
eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia
igotzen diren unetik, urtebetetze
egunera bitarte, ikusgai izango da
webgunean. Ez dadila tamaina handiko
argazkia izan.
Tamaina editatzerik ezean, zorion-
agurra helarazteko erabili ezazu posta
elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta
idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera.
Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



AZKEN HITZA

AMAIA SENPERENA
AIURRI

Jarrai dezagun bidea egiten

Nork esango zidan niri, orain dela urte batzuk Lilatoian parte hartu behar nuenik. Betidanik izan dut horrelako lasterketa solidarioreen batean parte hartzeko gogoia, Lilatoia ez baita lasterketa kompetitibo bat. Beti egongo da irabaztera doanik, baina Donostiako lasterketa hori baino askoz gehiago da.

Ezin dut deskribatu irteeratik abiatu baino hamar minutu lehenago sentitu nuena. 5.000 emakumetik gora, berdintasunaren aldeko borrokagatik korri egiteko prest. Ingurura begiratu eta zirrara zen askoren begietan ikusten nuena. Urduri nengoen, ez nekien oso ondo lasterketak noraino eramango ninduen baina une horietan berdinduta ziztandien. Momentu horretan aurreiritziak etxean utzi eta dena emango nuela erabaki nuen.

Lasterketa hasi bezain laster inguruko emakumeen alaitasunak eta ongi pasatzeko gogoak bete ninduen. Alboetara begiratu eta irribarreak besterik ez nituen ikusten. Parte hartzaileengan, eta baita inguruan animatzen zeuden guztien aurpegietan, irribarrea nagusi zen. Ikaragarria izan zen denen artean sentitu nuen indarra. Bagindoazen aurrera eta giroak, musikak eta guztion animo oihuak lagunduta helmuga geroz eta gertuago ikusten genuen.

Helmuga, orain dela urte batzuk, inoiz zapalduko ez nuela iruditzen zitzaidan. Kurtsaal parean azkenengo indarrak hartu eta guztion laguntzarekin helmuga zapaldu nuenean gauza bat argi geratu zitzaidan. Urtzek bere kantuan aipatzen zuen bezala, zaila bada ez da ezinezkoa.

Beraz, segi dezagun guztion artean berdintasunaren alde lanean, lanean jarraitzen badugu iritsiko gara eta.

AZKENA



Jone Larrañaga kazetaria, Maria Jesus Otamendi, Arantxa Lizarribar eta Inmakulada Lasarte solaskideekin batera. AIURRI

Bidegileak, berdintasunaren bidean

“Andoingo emakumeen aztarnak. Gure ekarpena herriko historiari” izeneko solasaldia egin zuten Basteron, joan zen asteartean. Otamendi, Lizarribar eta Lasartek euren bizipenak eta gogoetak kontatu zituzten

Erredakzioa ANDOAIN

Hirurak ere emakume langileak izan diren aldetik, memoria ariketa egiteko eskatu zien Jone Larrañaga moderatzaileak. Andoingo belaunaldi berezi-berezi bateko kideak dira, hirurak ere. Bestela esanda, bi aro oso ezberdinen arteko kate-begiak izatea egokitu zaie: etxean umeen zaintzan geratzen ziren emaku-

meen eta lan merkatuan murgiltzea gauzarik normalena gisa bizitu duten emakumeen artekoa.

Inmakulada Lasarte 1940an jaio zen, eta 12 urterekin eskola utzi behar izan zuen, gaixo zeukan ama zaintzeko. Oso gazte hasi zen lanean lantoki batean, baina ezkontzerakoan lana utzi zuen, bere garaiko beste hainbat emakumeren antzera. Gerora,

etxeko negozioari heldu zion. Harakina izan da urte luzez; herrian pertsona aski ezaguna da.

Arantxa Lizarribar 1945ean jaio zen eta lantegi askotan egin zuen lan, oso gaztetatik hasita. Frankismoaren aurkako eta euskararen eta langileen eskubideen aldeko borrokan inplikatu zen, eta horrek klandesti-

nitateko bizimodua eramatea eragin zion. Andoni Urbietarekin ezkondu eta egun berean, ihes egin behar izan zuen; maiz sufritu zituen kartzela egonaldiak. Galardi hartzaindegian 32 urte egin zituen hezitzaile gisa, bertako zuzendari izanik.

Maria Jesus Otamendi 1950 jaio zen eta 18 urterekin irakasle titulua lortu zuen. Andoingo ikastolan aritu zen urtebetez, baina ikasketa laikoagoak eskatzeagatik kanporatu zituzten zazpi irakasleetako bat izan zen. Usurbilgo ikastolan, 35 urte egin zituen.

Hirurak ama dira, eta horietako bi, Maria Luisa eta Inmakulada, amonak ere bai. Udalak antolatutako solasaldian zehar, gaur egungo ikuspegitik xeber break diruditen hainbat konturen berri eman zuten. Hala nola, iraganean etxetik kanpo lantoki batean lan egiteagatik emakumeek sufritzen zuten presio soziala, soldaten diskriminazioa...

Eskubide eta eskabide asko mugatuta, 1978ra arte

Espainian, 1978ko Konstituzioa heldu zen arte, eguneroko bizitzan zenbait zeregin eta eskubide sozial ez zeuden emakumeen esku. Are gehiago, hainbat prozedura administratiborako aitaren edo senarraren baimena beharrezkoa zen: besteak beste, banketxean kontu korrontea irekitzea, gidatzeko baimena edo pasaportea ateratzea, denda edo merkatalgune baten titulartatea edukitzea, familia planifikazioan sar zitezkeen hainbat erabaki hartzea (abortoa, tronpen lotura...). Berrogei urte pasata, deigarri egiten da.

Santa Krutz jaietako txartel lehiaketa

Urtero bezala, Santa Krutz Jai Batzordeak txartel lehiaketa antolatzen du jaietako egitaraua atontzeko. Lehiaketa honen berri eman dezazuen orain hemen arautegia.

- | | | | |
|---|--|--|--|
| 1. Txartela nahi den teknika edo margo erabiliz aurkeztu daitezke. | 4. Lanak honako helbidean aurkeztu behar dira: Ernaizta Liburudenda, Zumea kalea, 9. 20140 Andoain. | 6. Sari bakarra egongo da: 200 eurokoa. | Lehiaketan parte hartzen dutenek ezinbestean onartuko dituzte baldintza hauek: |
| 2. Txartelaren neurria Din A-4 (297 x 210 mm) edo Din A-5 (210 x 148,5 mm) izango da. | 5. Lanak aurkezteko azken eguna 2018-03-27 izango da, arratsaldeko 18:00etan, bertan egilearen datuak (izen-abizena, telefonoa, helbidea...) txartelarekin batera kartazal itxi batean jarriko dira. | Sarien irabazleak txartelari dagozkion jabeago eskubideak Santa Krutz Jai Batzordearen mesedetan galduko ditu. | Urtero bezala lehiaketa honen berri emango duzuelakoan, jaso gure eskertza. |
| 3. Ezinbestekoa da txartelean SANTA KRUTZ JAIK 18 (edo 2018) esaldia azaltzea. | | | SANTA KRUTZ JAI BATZORDEA |